18. urteurrena

ortzadar

larunbata, 2015eko apirilaren 25a. 400. zenbakia

deia.com

euskal kulturaren kolore guztiak



'ITZAL GALDUAK'

Dantza tradizionala eta modernoa lotzen dituen ikuskizun berria

-- 4-5. orrialdeak --

AGUXTIN ALKHAT

"Alaitasunari ez diot abesten, kantugintzan iluna naiz"

-- 7. orrialdea --

“Tailerrak leku aproposak iruditzen zaizkit nobela beltzak kokatzeko”

‘Aita Gurea’ da **Iñaki Irasizabal** idazle durangarraren azken eleberria. Hain maite duen genero beltzari paparretik heldu eta egungo gizartearen argazki iluna dakar bizkaitarrak

AINTZANE LARRAÑAGA

PRENTSA hidraulikoak, familia-loturak, drogak eta istripuak. Denetariko osagaiak bildu ditu Iñaki Irasizabalek (Durango, 1969) bere azken eleberrian. *Aita Gurea* izenpean, “tentsio handiko istorioa” aurkeztu du idazle durangarrak bere hamargarren nobelan, modu askotako giza harremanak batuz. “Gauza txar asko agertzen dira, baina pertsonaia gaiztorik ez dago; gizatasunez beterikoak dira guztiak. Eguneroko bizitzan ere, inor ez da erabat ona edo erabat gaiztoa”, dio.

Aurreko urtean ekin zion lanari Irasizabalek, eta testuinguru gisa lantegiak erabiltzea erabaki zuen prozesuaren hasieran. “Tailerretan lan egindakoa naiz, eta beti leku aproposak iruditu zaizkit eleberri beltzak eta mota horretako istorioak kokatzeko. Gainera, Euskal Herrian, Gipuzkoan eta Bizkaian batez ere, tradizio handia duten elementuak dira”, adierazi du. Idazlearen aburuz, krisiaren eta langabeziaren harira, industriak literaturan presentzia irabaziko du eta “sarriago” agertuko da gizarte kritika oinarri duten nobeletan.

Azken hamahiru urteetan hamar eleberri kaleratu ditu Irasizabalek, nobela beltzak gehienak. RUBEN PLAZA

“Gizartearen inguruko begirada kritikoa” dakar durangarrak *Aita Gurea* eleberriarekin, eta liburuan behin baino gehiagotan ageri den poema batetik hartua da obraren izenburua: “*The Sopranos* telesaila ikusten ari nintzela, Jacques Preverten poema bat topatu nuen, honakoa zioena: ‘Aita gurea zeruetan zarena, gelditu zaitez bertan, eta gu hemen / lurrean geldituko gara, / batzuetan hain ederra den lurrean’. Nire lanerako oso egokia iruditu zitzaidan”, aitortu du.

GENERO BELTZEAN Idazle emankorra da Iñaki Irasizabal, azken hamahiru urteetan hamar eleberri kaleratu baititu durangarrak. Nobela beltzari estu lotuta doa bere ibilbidea, eta obra berri honetan ere genero horretako elementuak txertatu dituela adierazi duen arren, “mugako eleberria” dela aitortu du. “Ukitu beltzak dituen drama da: drogak, tiroketak, labankadak, polizia, lapurretak... ageri dira, baina ez dago ikerketarik. Drama da, baina ez daukat argi eleberri beltza ere baden edo ez. Mugako generoa dela uste dut, eta horixe da gehien gustatzen zaidana”, gehitu du.

Genero poliziakoarenganako miresmen horrek badu alde praktikoa idazle bizkaitarrarentzat. “Oso genero egokia iruditzen zait, delituek eta, orokorrean, arriskuak irakurlearen arreta lortzen baitute. Gainera, kontu serioez mintzatu naiteke irakurlea lokartu gabe”, azaldu du. Horretaz gain, nobela beltzaren oinarrizko helburuetako bat “gizarte kritika” egitea dela gogorarazi du Irasizabalek. “Ezer ezin liteke hobetu kritikarik gabe, eta hori idazle eta kazetarien eginbeharretako bat dela uste dut”.

> **“Gauza txar asko dago, baina pertsonaia gaiztorik ez dago; gizatasunez beterikoak dira guztiak”**

EGUNEROKOTASUNA ITURRI “Inguruan ikusitakoa eta hedabideek eskainitakoa” izaten da maiz inspirazio iturri Irasizabalentzat, eta Carles Porta eta Tom Perrotta bezalako idazleen lanak ere gertutik jarraitzen dituela adierazi du. Jasotakoarekin, lehendabizi istorioa garatzen duela azaldu du idazleak. “Ezer idazten hasi aurretik, istorioa lantzea gustatzen zait; ez erabat, baina bai zatirik handiena. Idazketa prozesua luzea denean, bidean beti aldatzen dira gauzak, eta istorioa bera ere, neurri batean, aldatu egin daiteke”.

Gai eta eredu desberdinak jorratu arren, prozesu horiek guztiek xede berbera izaten dute idazlearen aburuz: “Ahalik eta istoriorik onena ahalik eta ondoen kontatzea da nobelagile guztion helburua. Ahalik eta indartsuen eta sendoen, aberatsen eta eraginkorren izan dadin”. Amaitu berri du bidea *Aita Gurea* eleberriarekin, eta aurrera begira jarrita, buruan “ideia batzuk” bueltaka dituela aitortu du durangarrak, baina oraingoz ez dela ezertan hasi adierazi du.

GIZA HARREMANAK ARDATZ Irasizabalen azken lanek badute konstante bat, gai eta arlo desberdinak jorratu arren, bere horretan mantentzen dena: pertsonen arteko harremanak. “Familia gizaki guztion testuingurua da. Denok gara aita, ama, seme, alaba, lehengusu, biloba edo aitona, baina harreman horiek modu desberdinean bizi ditugu. Horrek egiten ditu lotura horiek hain onak literaturarako: denontzat dira gertuko harremanak eta bereziak aldi berean”, azaldu du.

Aita Gurea obrari so, protagonista emakume gazte bat izateak nobela beltzaren mundua aldatzen ari dela agerian utzi du, eta Irasizabal ere ohartu da horretaz. “Normalean gizonezkoak izaten dira mota horretako istorioetako pertsonaia nagusiak, *sinesgarriagoa* delako. Azken hamarkadetan, ordea, joera hori aldatzen ari da, zorionez, genero horretan aritzen diren emakumeak ere gehiago direlako”.

Editorial Iparraguirre S.A.

Zuzendaria: Bingen Zupiria
Ardura: Iñaki Mendizabal Elordi (mendi@deia.com)
Koordinazioa: Julene Larrañaga

Azala: Gero Axular
Diseinua: Jesus Santamaria
Maketazioa: Naroa Etxebarria
Lege Gordailua: BI 1720-06

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Gehigarri honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

KRITIKA EDORTA JIMENEZ

Sentiberatasun orekatua

TITULUA: **'ERRESUMAREN ILUNSENTIA'** EGILEA: **MILA SALTERAIN** ARGITALETXEA: **TXALAPARTA**

MENDEZ mende arrakastaren ildoan dirau historia-nobela edo eleberri historikoa delakoak. Azpigenero legez, baita maisu-lanen bidez ere, idazle handi askori eman baitie gogoak halakoak idazteak. Halaxe, aipagarria da Margarite Yourcenar beraren *Adrianoren oroitzapenak*, euskarari Jose Agustin Arrietak maisutanez ekarria, idazleari misteriotsu bezain kontagarri zitzaion Erromako Enperadore hartaz diharduena. Edo Ecoren *Arrosaren izena*, gizarte oso baten testigantza bestela narratu ezina omen zitzaiona kontatu ziguna. Pertsonaiak, aroak, bestela konta ezin direnak, horra historia-nobelarako zioetako batzuk. Mila Salterainek *Erresumaren ilunsentia* idazteko izan dituen zio berberak. Edo antzekoak.

Salterainek Bigarren Milurteko lehen mendeak ekarri dizkigu generoaren zaleoi. Aro oso bat, eta lurralde zehatza: Durangaldea. Nafarroako Tenentzia izan zen hura nondik nora galdu zuen Erresumak, nork nori traizio eginez, horixe kontatu digu. Ni naizen irakurle honi itzel ezezaguna izan zaio liburuan kontatzen dena, egia. Eta historia-nobelak arrakasta izaten segitzen baldin badu, lehenago aipatu dugun idazleen gogoagatik ez ezik, irakurleen gogoagatik ere dirau indartsu. Ezezagun zaigun hori erakargarri zaigulako. Alde horretatik ere *Erresumaren ilunsentia*k ez dio huts egingo irakurle gogotsuari.

Historia-eleberriaren koska nagusienetako bat, ostera, besteoi ezezagun zaigun hori zelan kontatuan datzalakoan nago. Idazleak dakienak ez ote gaituen itoko. Hara zergatik behar izaten diren, gehienetan behintzat, pertsonaiei buruzko argibideak eta kronologiak liburuotan. Honetan bezala. Beste koska handi bat hizkera da. Alegia, nola egin sinesgarri irakurtzen eta, beraz, hizketan aditzen ari garena. Salterain, burutsu jokatuz, ez da lar lerratu lexiko eta mintzaira historikoen aldera. Ez du egin, Etxaidek egin zuen legez, oso muturrerantz. Nolanahi ere ez dio uko egin hizkuntzaren erronkari.

Horiek horrela, eta literaturan azken batean zer zelan kontatzen den izanik gakoetan gakoa, esan behar dut Salterainek sentiberatasun ikaragarriz egiten duela aurrera bere kontaeran. Igarri egiten zaio garaiari, lekuari eta pertsonaietako zenbaiti –izan historikoak izan asmatuak– dien maitasuna. Beste batzuei dien herra igartzen zaion bezalaxe. Edonola ere, sentiberasun nahikoa orekatua da Salterainen testuari dariona. Idatzi duen historia zatia, istorio txikiz eta sarritan ederto kontatuez hornitua, negarrerako motibo ere izan zitekeen eta.

Salterainek Bigarren Milurteko lehen mendeak ekarri dizkigu generoaren zaleoi. Aro oso bat, eta lurralde zehatza: Durangaldea

Emakumezko idazle baten izena aipatuz ekin diot liburua iruzkintzeari. Bada, Salterainen lanean emakumezko pertsonaia ugari dago, bekaizkeriaz diot. Idazleak haragizko erakutsi gura izan dizkigunak dira. Galeria oso bat, irakurleek zeintzuei alderatu izango dituztenak, ziur. Emakumezko horien bidez Salterainek bere eskualdeko emakumezkoen adizkiak berreskuratu ditu. Horiek bizirik iraun ez iraun, hiztunek dute hitza, ostera.

Erresumaren egunsentia izenburua ezarri dio egileak eleberriari, galde egin dezagun zein erresumaz ari den, beharbada, eta Nafarroaz ari bada, arestian esan legez, galde egin dezagun zer dela eta "egunsentia". Galdera horrexen erantzuna, Salterainek kontatu diguna.

JON ANDONI MARTIN-EN BEGIRADA

(Azkoitia, 1964)

Ikus:
Facebook
https://www.facebook.com/pages/Jon-Andoni-Martin_argazkiak

SALDUENAK

Fikzioa

1. **Atertu arte itxaron**
Katixa Agirre. Elkar.
2. **Ez tiro egin anbulantziei**
Mikel Ayllon. Elkar.
3. **Bi urtetako kronika...**
Joan Mari Irigoien. Elkar.

Ez Fikzioa

1. **Beruna Patrikan**
Ander Izagirre. Libros del K.O.
2. **Bobby Sands. Martxa...**
Denis O`Hearn. Txalaparta.
3. **Euskal Herriaren historia...**
J. Asiron, M. Alzueta. Txalaparta.

ITURRIA: Elkar.

ERAKUSLEIHOA

LITERATURA

'Munduko poesia kaierak'

A. Sexton, S. de Mello, G. Ferrater. Munduko Poesia Kaierak. Susa. 64 orr. 10 euro aleko.

Hiru kaiera berri

Anne Sexton, Sophia de Mello eta Gabriel Ferrater euskaratu dituzte Harkaitz Canok, Iñigo Roquek eta Aritz Galarragak, hurrenez hurren. Sexton AEBtako poesia konfesionaleko figura garrantzitsuenetakoa izan zen, eta bere joera depresiboak markatu zuen haren obra. Bere aldetik, Pessoa ondorengo Portugalgo izen handienetako bat dugu de Mello. Azkenik, 36ko gerraondoko poesiagintza katalanean nabarmendu zen poeta handienetakoa izan zen Ferrater.

LITERATURA

'Jende desegokia'

Gaizka Zabarte. Susa, 250 orr. 18 euro.

Zurrunbilo gogaikarrian

Komedia zorrotza, amodioz eta desamodioz gurutzatua, ironiaz josia eta umore onez dabiltzanentzat soilik gomendagarria. Peter Zuazok gonbidapen bat jaso du, Bilbon izango diren jardunaldi batzuetan hizlaria izan dadin. Desegokituen Elkarteak egin dio gonbita, eta izen horrek, noski, segituan sortzen dizkio harridura eta jakin-mina. Ezetz esan behar luke bi aldiz pentsatu gabe? Baietz erantzunez gero, zurrunbilo gogaikarri batean harrapatuta geratzeko arriskua izango du.

Tradizioaren eta modernitatearen arteko oreka

Donostiako Gero Axular dantza taldeak Noainen eskainiko du 'Itzal galduak' ikuskizunaren hurrengo emanaldia, maiatzaren 24an

JON ANDER URKIAGA EGIDAZU

Gaur egun, 290 kidek osatzen dute Gero Axular dantza taldea. GERO AXULAR

ESKOLAZ kanpoko ekintzen abaniko zabalean beste aukera bat baino gehiago da Gero Axular dantza taldeak eskaintzen duena. Ez da mugatzen astean birritan haurrei ezpata-dantza, jota eta arina-arina irakastera. Baina, noski, hori ere egiten du. Donostiako Axular ikastolako ikasleen gurasoek sortu zuten taldea, 2004. urtean, Gero Axularreko zuzendaria den Juan Luis Unzurrunzagaren ustez, transmisioaren jarraipenean arazo bat zegoelako. "Hau da, ikastolan bazegoen dantza talde bat, baina haurrak bost urterekin dantzan hasi eta zazpi urterekin utzi egiten zuten". Horri erantzun bat eman nahian gurasoak biltzen hasi ziren, egoera nola irauli aztertzeko, haurren eta gazteen ilusioa zein zen jakiteko, eta, ondorioz, haien jarraipena bermatzeko. "Helburua garbia zen: haurrei eman nahi genien betegarri zitzaien hura; kulturak aurrera egin dezan, haurrei eta gazteei eurek eskatzen dutena eman behar zaie".

Eta ahalegin horrek guztiak emaitza positiboak ekarri dizkio taldeari. Izan ere, momentu honetan 290 kidek osatzen dute dantza taldea. Gaur egun, betiko fandangoa, arina-arina eta edozein herritako jaietan dantzatu ohi diren beti-betiko dantzak irakasten eta dantzatzen dituzte, baina baita, horiek oinarri hartuta, koreografia landuagoak ere. Unzurrunzagak dio eraldaketa gertatu aurreko garaietan, Gero Axularren dantzaren irakurketa tradizionala baizik egiten ez zen garaietan, 30 dantzari bakarrik zebiltzala taldean, eta seguru dago emandako pausoak eragin zuzena izan duela. "Oso garbi izan behar dugu nondik gatozen eta zein den gure tradizioa, horretan ados gaude. Talde batzuek ikerketa lan hori egin behar dute, eta, lan hori ez balego eginda, guk geuk egin beharko genuke; baina, hori argi esan ondoren, uste dugu gaur egungo gazteek beste pauso bat emateko eskatzen digutela, eta horri erantzuna eman diogu Gero Axular dantza taldetik".

Esate baterako, aldaketetako bat musikaren alorrean gertatu da. Unzurrunzagak dio haurrak eta gazteak ez zirela motibatzen txistu bakar batekin, eta, hortaz, "musikari garrantzi handia eman behar zitzaiola". Horregatik, bai haurrei, bai unean uneko ikuskizunari berari gaur egungo soinuen berezitasuna ematen saiatzen da taldea, eta, betiko txistu eta txirulez gainera, adibidez, flautak, gitarrak eta era guztietako perkusioak erabiltzen dituzte.

TALDE ZABALA Dantza taldearen bigarren sasoian abiatutako haur horiek 20 urtetik gorako gazteak dira dagoeneko, eta "umetan hasi ziren haietatik erdiek baino gehiagok jarraitzen dute taldean"; beraz, taldearen egitura zabaldu egin da: egun umeen talde bat, gazteen talde bat eta nagusien talde bat barnebiltzen ditu Gero Axularrek. Gainera, atea edonorentzat irekita dagoela azpimarratu du zuzendariak, eta horren erakusle da ikastolarekin zerikusirik ez duten partaideak ere badirela dantza taldean.

Dantzarien mailari begiratuta ere, ez dute inolako eskakizunik egiten. "Ia gehienak zerotik hasten dira, eta, beraz, irakasle lana ere egiten dugu, haurrei zein nagusiei zuzenduta. Gero, gainera, horietako batzuk taldean bertan geratzen dira. Baina, era berean, maila jakin bat dutenekin hobekuntza eta teknifikazio saioak ere egiten ditugu".

> "Etxean ez bezala, kanpoan ondo sentitzen dira gazteak, egiten dutena errespetagarria dela ikusten dutelako", dio Unzurrunzagak

DANTZATIK KOREOGRAFIARA Martxoaren 28an aurkeztu zuen Gero Axular dantza taldeak bere azken ikuskizuna, Donostiako Viktoria Eugenian: *Itzal galduak*. Pozik agertu da Juan Luis Unzurrunzaga zuzendaria obrak izandako harrerarekin: "Jendetza batu zen antzokian, eta kritika onak eta baikorrak egin dizkigute; denek zoriondu gaituzte, oso pozik gaude". Ikuskizunen

Ikuskizunerako berenberegi sortu dituzte arropa eta osagarriak. GERO AXULAR

Errespetu bila, kanpora

Dantzaren alde praktikoaz gainera, alde teorikoa ere lantzen du Gero Axular dantza taldeak. Adibidez, Juan Luis Unzurrunzaga zuzendaria euskal kulturari buruzko konferentzia bat prestatzen dabil egunotan, udan Grezian eskaintzeko. “Euskal dantzek oso inportantzia handia dute, eta taldeko kideok uste dugu garrantzia hori ez dela geratu behar soilik bisualki islatuta: gure kultura zer den, nondik datorren eta, gure ustez, kultura horrek nora joan behar duen azaldu behar dugu”. Europan zehar sarritan ibiltzen da Donostiako taldea, eta Unzurrunzagak dio euskal folklorea oso ondo ikusita dagoela kanpoan. “Folkloreak bere izateko arrazoia du, herri bakoitzaren kulturaren sareetan sartzen delako, eta Europan oso garatuta dago”. Euskal Herrian bertan, berriz, zuzendariaren hitzetan, folklore hitzak ba omen du zama bat, “askotan Andaluziako folklorearekin lotzen delako hitz hori, eta hori gaizki ikusita egon da hemen. Gure haurrei askotan galdetzen diete Euskal Herrian bertan ea zergatik egiten duten euskal dantza. ‘Dantza horiek neskenak dira’ edo ‘lehengo gauzak dira’ esaten diete. Kanpora goazenetan, aldiz, ondo sentitzen dira, egiten dutena errespetagarria dela ikusten dutelako. Eta hori da kanpora irteteko arrazoi nagusietako bat”.



Nafarroan girotu dute ‘Itzal galduak’ ikuskizuna. GERO AXULAR

bidez, dantza erakusteko beste modu bat eskaintzen du taldeak, tradizioan oinarritu arren, pauso bat egiten du aurrera, eta hori da ikusleak aurkituko duena *Itzal galduak* lanean ere.

Azkeneko ikuskizunetan taldeko kideek sortutako istorioak kontatzen saiatzen direla aipatu du Unzurrunzagak, betiere momentu historiko jakin eta erreal batean kokatutako istorioak. Azken lan honetan Nafarroan kokatzen da lana. Bigarren gerra karlista eta gero, Nafarroan krisi ekonomiko handi bat bizi izan zuten, eta, ondorioz, milaka gizonek eta emakumek Maulera alde egin behar izan zuten, bertako espartina fabriketan lan egitera. Testuinguru horretan, Otsagabiako mutil gazte bat da ikuskizuneko protagonista; bere arima saltzen dio deabruari, ikasketak ordaindu ahal izateko, eta, ikasketak amaitu ostean, Otsagabiara itzultzen da, herria etorkizun hobe batera gidatzeko.

Koreografia sortu, zer pauso erabiliko duten aukeratu, musika moldatu, arropa sortu... Hori guztia zaindu behar omen da oholtzara emanaldia atera aurretik, baina oraingoan taldekideek beste urrats bat gehitu nahi izan diote obrari: “Sortu genuen aurreko lana *Argizaiola* izan zen, eta Gernikako bonbardaketaren ondoren herrian bertan kokatzen zen istorio bat kontatzen genuen bertan. Baina lan horrekin alderatuz gero, dantzarien teknikari dagokionez, aldaketa batzuk dakartza *Itzal galduak* ikuskizunak. Obra honetako pausoak, adibidez, zailagoak dira, zailtasun bat bilatu dugu ikuskizun hau sortzeko orduan. Teknikoki erronka hori jarri nahi genion taldeari, eta uste dugu erronkari erantzun ona eman diogula”.

Donostiako emanaldia eta gero, ekitaldiz beteta ditu datozen hilabeteak Gero Axular dantza taldeak. Maiatzaren 24an, esaterako, *Itzal galduak* ikuskizuna Noainen (Nafarroa) egongo da ikusgai. Ekainean tradizioarekin eta San Joan bezperako dantzekin du hitzordua, Donostiako Aiete auzoan, eta hilabete horretan bertan, 27an, Greziara joango dira taldekideak, besteak beste. Beraz, Gero Axular dantza taldeak argi du ez duela ez itzalik eta ez galdutako ezer nahi, etorkizunari bizi-bizi begiratzen dioten argi printzak baizik, gazteenei ere erakargarri zaizkien euskal dantzak baizik; eta horri arnasa emateko aukera ugari izango du eguzkiak berotutako datozen hilabeteetan.

Ohiko liburuetatik haragoko artelanak

Arteliburu 21 elkarteak artista-liburu eta arte-koadernoen sekretuak publikoari zabaltzea du xede. Horretarako, tailerrak, hitzaldiak eta erakusketak antolatuko dituzte Donostian ireki duten egoitza berrian

AINHOA LORES

ARTELIBURU 21 sortu eta urtebetera dator Donostiako Gros auzoan elkarteak atondu duen espazioaren inaugurazioa. Dagoeneko 30 lagun dira egitasmo honetan parte hartzen dutenak, eta horietako bat Eluska Kortajarena dugu. Arte Ederretan lizentziaduna, erretratuak margotzen ditu eta arte plastikoen tailerreko zuzendaria ere bada. Hasieratik, elkarteari lokala eskaini izan dio kideak bertan biltzeko.

Orain, aldiz, aurrerapauso garrantzitsua eman dute Arteliburu 21 taldeko kideek, eta biltzeko gune soila zena euren egoitza ofiziala bilakatu dute. Liburuaren arte eta ofizioak bultzatzeko eta, zehazki, artista-liburua eta arte-koadernoketa sustatzeko ideia ezagutarazi, hausnartu eta ikertu nahi da espazio honetan. "Publikoarentzako gunea izatea nahi dugu, eta laster, hilean behin, Ateneoa ekimena ere aurrera eraman nahi dugu", jakinarazi du Kortajarenak. Hala, aurrera begira gune honetan erakusketak, tailerrak edota hitzaldiak egin nahiko lituzketela adierazi du.

ZENTZU GUZTIEKIN GOZATZEKO XX. mendeko diziplina dugu artista-liburuarena. "Arte-adierazpen plastiko bat da; liburua artelan bat da bere horretan, forma eta eduki ugari garatzeko gai dena", azaldu du Kortajarenak. Sorkuntza artistiko bat denez, artista-liburuak ez ditu zertan egungo liburuaren ohiko mugak aintzat hartu behar, aukeran du muga horiek onartu edo baztertzea. Eta garrantzitsuena: liburu tradizionaletatik harago doan diziplina dugu; zentzu guztiekin gozatzeko piezak dira hauek, mugak haustera datozenak. "Artea da, eta, horrexegatik, arriskuarekin jolasten du, artista batek edo talde oso batek hasieratik bukaerara arte landu eta kontrolatzen duen artelana da", iritzi dio Kortajarenak.

Urte "oso ona" izaten ari dela dio elkarteko buruak, besteak beste, "Errenteriako Udalaren laguntzarekin Merkatuzarren antolatu genituen topaketek izugarrizko hasiera eman ziotelako taldeari". Honakoa Euskal Herri mailan horrelako zerbait egiten den lehendabiziko aldia izan dela adierazi du Kortajarenak. "Topaketen aberastasuna ez zen bakarrik erakusketetan oinarritzen, liburuaren arte eta ofizio desberdinetako pertsonen parte hartzean baizik". Kortajarenak kontatu duenez, "adin guztietako jendea" hurbildu zen topaketetara, eta nabarmentzekoa izan zen tailerretan parte hartu zuen ume kopurua ere, "200 inguru guztira", zehaztu du. Ordutik aurrera gauza asko egin dute Arteliburu 21en, eta, Kortajarenaren ustez, aldaketak ere eman dira, "horietako bat inguratzen gaituen jendearen adinean eman den aldaketa izan da, ikusten ari garelako geroz eta gazte gehiago sartu dela elkartean", nabarmendu du.

KOLABORAZIO UGARI Topaketen esperientzia lagun gutxi batzuren artean gauzatzea lortu badute ere, elkartean zuzenean sartu gabe ekintzetan lagunduz kolaboratzen dutenak ere gero eta gehiago izaten ari direla kontatu du Kortajarenak. "Gaur egun, elkartearekin bat egiten duen geroz eta jende gehiago dago, gurekin era batean edo bestean kolaboratu eta lan egiteko prest daudenak, bai indibidualki edota erakunde edo instituzio baten izenean". Hala, Errenteriako Udala, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturgunea, Tabakalera eta gisa berdineko erakundeekin lan egiteko aukera izan du egitasmoak.

Arteliburu 21 aitzindaria da bere esparruan, izan ere, "pertsonalki gaia jorratzen dutenak badira, baina ez kolektiboki", nabarmendu nahi izan du Kortajarenak. Hala ere, Euskal Herri mailan elkartea nahiko ezezaguna da oraindik. "Ez nuke jakingo zergatia azaltzen. Artista gehienek beraien ibilbidearen uneren batean lantzen dute diziplina hau, baina artista liburua bere lanaren oinarritzat hartzen duen artista gutxik hartu dute sona, bere garaian Oteizak eta Txillidak eskulturarekin egin zuten ez bezala. Artista edo kolektibo ospetsu batek hala egingo balu, agian mediatikoki esparru ezagunagoa bilakatuko litzateke artista liburuarena", dio Kortajarenak.

> "Liburu tradizionaletik harago doan diziplina da hau; mugak hautsiz, zentzu guztiekin gozatzeko piezak dira", esan dute

Aurrera begira, publikoari eskaintzeko proiektu ugari ditu esku artean Arteliburu 21ek. Hilabete honetan Tabakaleran ematen ari diren tailerrak edota Errenteriako Udalaren laguntzarekin haur eta nerabeentzako antolatuko dituzten erakusketa didaktiko-gidatuak eta tailerrak dira horren adibide. "Gure hurrengo parte hartzea Olatutalkan izango da. Bertan, Donostiako egoitza desberdinetan antolatuko diren Artista Liburu eta Arte Koadernaketari buruzko Topaketak egingo dira", azaldu du Kortajarenak.

Horrez gain, aipatzekoa da hilean behin antolatuko dituzten Ateneo ekimen artistiko-kultural-literarioak. Kortajarenak azaldu duenez, "ezagutzak partekatzeko edota eztabaida eta esperimentazio banku gisa funtzionatuko du ekimen honek". Gainera, erakusketa, hitzaldi, emanaldi eta abarren bidez artista zein kolektiboek beraien proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte ekimen honen baitan.

Arteliburu 21 elkarteko kideak, Donostiako egoitza berrian. ARTE LIBURU 21

Haizea dator iparraldetik

Folk estiloko kantu tradizionalak eta doinu rockeroak uztartzen dituen 'Haizeen meneko' diskoa dakar **Aguxtin Alkhat** musikari heletarrak

JULENE LARRAÑAGA

BERE aitarengandik jaso zuen tradizioarekiko lotura Aguxtin Alkhatek (Heleta, Behe Nafarroa, 1982). Ernest Alkhat bertsolaria zuen aita, duela zazpi urte zendua. Haren aldamenean hasi zen Aguxtin sormenaren bideak urratzen. "Bera bertsolaria zen, baina musika taldeentzat ere abestiak idazten zituen. Txikitatik ukan dugu sormenarekiko maitasuna etxean, eta neu ere bere ondoan hasi nintzen idazten, nahiz eta kantugintzara bideratu dudan nire ibilbidea", kontatu du.

Haizeen meneko ez da heletako musikariaren lehen lana; 2013an, *Ihes egin*, sei kantuz osaturiko EPa argitaratu zuen, Usopopen laguntzarekin. Elkar Estudioak programan parte hartu ondoren, diskoetxe honen gonbitari erantzunez grabatu du argitaratu berri den bere ibilbideko bigarren diskoa. Musikari gisa, "Iparraldeko musikagintza tradizionalaren oinordeko" moduan ikusten du bere burua Alkhatek, nahiz eta rock banda baten babesean aritzean "modernitate kutsu bat" hartzen duten abestiek, bere esanetan.

TALDE IZAERA Aurrez bakarlari moduan ere aritu izan da Alkhat, gitarra soil bat lagun, baina duela hiru urte taldea osatu zuen aspaldiko lagun batzuekin, eta *Haizeen meneko* lana taldekide horiexekin burutu du. Berarekin batera aritu dira disko honetan Willis Drumond taldeko kide Julien Labat (gitarra elektriko eta akustikoa), Xan Bidegain (gitarra), eta Felix Buff (bateria eta perkusioak). Gonbidatu gisa, Txus Aranburuk teklatuak jo ditu diskoko zenbait abestitan. "Azalean nire izena ageri bada ere, talde gisa funtzionatu dugu, eta talde lan horren emaitza da disko hau", argitu nahi izan du.

Diskoko kantu guztien hitzak eta melodiak Alkhatek berak sorturikoak dira. Pieza batzuetan Aguxtin bakarrik ari da, gitarrarekin. "Kantu batzuek, sinpleak direnez, gitarra eta ahotsarekin aski dute", dio. Beste batzuetan, ordea, "gitarra elektrikoak, baxuak eta bateriak abestien indarra handitu dute" iritzi dio heletarrak. "Esan daiteke, beraz, nik ekarri dudala mamia, baina gero guztien artean jantzi ditugula kantuak".

ESTILO DESBERDINAK *Haizeen meneko* diskoan badaude, alde batetik, folk ukituko kantu tradizionalak, baina baita modernitate kutsua duten doinu rockeroagoak ere. "Hastapenean, kantu aski tradizionalak egin nituen, gitarra akustiko batekin, Iparraldeko tradizioari jarraituz, eta gero taldean musika modernoagoarekin nahastu ditugu", azaldu du Alkhatek. "Diskoan badaude momentu lasaiak eta intentsoak –jarraitu du–, izan ere, nik kontrastea dut maite. Taldean egiten dugun musika nahiko eklektikoa da, iturri askotatik edaten dugulako ziurrenik".

Aguxtin Alkhat, zuzenean. ALAIN CAZENAVE

LETRA ILUNAK Kantuz-kantu gai askori heldu die Alkhatek. "Hunkitzen nauten gaiak dira, gehienetan ilunak eta tristeak. Nahiz eta egunerokoan pertsona alaia izan, alaitasunari ez diot kantatzen, gehiago inspiratzen naute doinu eta hitz ilunek, ez dakit zergatik", adierazi du. Era berean, bere abestietan letrei garrantzia handia ematen diela aitortu du, eta horren arrazoia entzulearen hausnarketa bilatzeko nahia dela dio. "Testu sakonak dira; nahi dudana entzuleari galdera batzuk pausaraztea da. Nahi nuke jendeak diskoa denbora ukanez entzutea, testuak barneratzeko".

Diskoa zabaltzen duen *Haizeen meneko* kantuan trasmisioaren gaia landu du Alkhatek, "gurasoengandik jaso dudan transmisioa, hain zuzen", zehaztu du. "Lur honek ekar ditzala / gero ta gehiago / jende berriak plazara / hurrengo aldirako", dio kantu horretan heletarrak. "Uste dut biziki inportantea dela mezu hori pasaraztea, eta bereziki Ipar Euskal Herrian, euskararen transmisioak izan duelako azken hamarkadetan etenaldi handi bat. Belaunaldi batzuek ez dute jakin edo ez dute nahi izan transmititu bere ondorengoei euskararekiko maitasuna eta euskaltzaletasuna, ez dute euskara erakargarri egin, eta gaur egun belaunaldi hutsune handi bat dago nahiko larria", agertu du bere kezka. Hain justu, euskaltzaletasuna etxean jaso zuen Alkhatek, eta hori bere gurasoei zor diela dio. "Garai hartan, Behe Nafarroan behintzat, ez ginen asko bide hori hartu genuenak, eta horregatik kantu honekin omenaldi bat egin nahi nien bai gurasoei eta baita Euskal Herri osoan euskara transmititzeko lan egiten duten guziei".

Bestalde, *Odol ixurien lurra* kantuan, Nafarroa du hizpide Alkhatek. "Baxenabartarra naizenez, eta nire familiak badituenez sustraiak Nafarroa Garaian, inportantea atzematen nuen idaztea gutxienez kantu bat Nafarroari buruz", esan du.

Aurrera begira, diskoa zuzenean aurkeztea da orain Alkhaten nahia, baina zailtasunak ikusten ditu. "Iparraldean bai, baina Hego Euskal Herrian ez da samurra mugaz bestaldeko jendearentzat toki bat egitea. Dena den, badituzu kontaktuak eta ari gara, besteak beste, San Ferminetan jotzeko aukera aztertzen. Ziur aukera gehiago ere etorriko direla", agertu du itxaropentsu.

1980 URTEgrafiak

Martin Zabaleta, Everesteko tontor mitikoa zapaldu zuen lehen euskalduna. DEIA

Mendiaren urtea

Juanra Madariaga
Filologoa eta idazlea

AROTZA etorri zen etxera erreminta guztiak aldean zekartzala. Egur garbiaren usainak hartu zuen nire gela. Armairu berria egingo zidatela esan zidan amak. Handik hilabete batzuetara, nireagotzeko instintuak barruko azalak garai haietako posterrez betetzeko emozioa luzatu zidan. Argi neukan zer jarriko nuen ateaz bestaldeko azalean: Everest Espedizioaren afixak, eta urte hartako egunkarietako albisteak. Gomutan ditut anorak lodi laranja kolore bizikoak, izotzaren urdin gardena, aurpegi haien nekea, bizarrak, bota lodiak, eta menditzarra: Everest; handik aurrera amets bilakatuko zitzaidana.

Urte hartako hasierako hilabetetan abiatu ziren espedizio-kideak, berton lotzen ginenontzat odisea izango zenari hasiera emanez. Izenak buruan ditut oraindik: Juan Ignacio Lorente espedizio-burua zen, Angel Vallejo Rosen, Ramon Arrue, Kike De Pablo, Xabier Erro, Ricardo Gallardo, Javier Garaioa, Emilio Hernando, Luis Maria Saenz de Olazagoitia, Joxe Urbieta Takolo, Felipe Uriarte eta mendizaletasunean hastekotan ginontzako heroia, Martin Zabaleta, tontor mitikoa zapaldu zuen lehen euskalduna.

Albisteak urriak ziren eta zalantzak eta emozioak neurri berean uztartzen ziren gure inpazientziarekin borrokan. Harik eta maiatzaren 14an, arratsaldeko 15:30ean, Martin Zabaleta eta Pasang Temba sherpa mendirik altueneko gailurrera heldu ziren arte. Eta gauzak zer diren! Duela bi urte, Khumbu bailara zeharkatzen ari nintzela, Namche Bazar herrira heldu baino lehen dagoen Monjo etxe-multzoan, Pasang Tembaren aterpean sartu ginen te bat hartzera. Hantxe agertu ziren ikurrinak, argazkiak, eta egunkarietako albisteak sherpak berak ekarrita. Gomutan zituen han goian pasatutako ordu latz guztiak. Bakean bizi zen gizona.

> **“Egun hartan, euskaldunok munduko mendirik altuenean egon ginelako albistea lau haizetara barreiatu zen”**

Datorren astean...

Joseba Aurkenerena

Diodan bezala, berriak ez ziren behar bezala heltzen, baina egun batean, euskaldunok mendirik altuenean egon ginelako albistea lau haizetara barreiatu zen. Bozkariozko leherketa izan zen hura, eta kalera irten ginela gogoratzen dut. Zazpi kaleetan ibili ginen oihuka, gure kirolariak goratzen eta gurtzen, eta nahiz eta politikoki urte nahasiak ziren, euskalduntasuna eta mendizaletasuna batu genituen instant batez, manifestazio txiki bat osatuz. Aste batzuk geroago gauza bera bizi genuen, garai hartako La Casilla pabilioian, mendizaleei harrera beroa eta sutsua egitera joan ginenean.

Armairua desagertu zen etxetik, eta berarekin batera hedabideetako albisteak eta beste guztia. Hala ere, oraindik, Felipe Uriartek izkiriaturiko *Oscura Cabeza Humeante* liburua eskuartean hartzen dudan bakoitzean, behinolako abentura hura akordura etortzen zait, eta mendizale hasi berria banintz bezala hasten naiz gogoratzen.

artez
euskara zerbitzua
itzulpenak - hizkuntza aholkularitza - papergintza
944 480 000 posta@artez.net www.artez.net
bai